

## **Haurreskolak Partzuergo Publikoko Zuzendaritza batzordeak haurren onarpen prozeduraren arautegiaren barruan hainbat aldaketa egitea erabaki du.**

Hartutako eranbakiaren sarreratik hasita, *“Haurreskolak Partzuergoak Euskal Autonomia Erkidegoan **zero-bi edo hiru urte** bitarteko adin-txikikoei hezkuntza-arreta eta laguntza-zerbitzu espezializatua ematea du helburu, familiekin batera haurren garapen integrala sustatuz.”*

Alderdien arteko akordiotik eratorriko den Hezkuntza legeari begira erabaki politiko zein pedagogikoak hartzen ari dela somatzen badugu ere, **LAB sindikatuak salatu behar du ez dela sindikatuarekin negoziatorik eman ezta haurreskoletako beharrak ondo ezagutzen dituzten haurreskola bakoitzeko jarraipen batzordeekin inolako kontrasterik egin.**

Era berean, gogor kritikatzeko dugu azken hilabeteetan **matrikulazioan era positiboan eragiteko LABek egindako eskaerei ez zaiela inolako erantzunik eman** (0 kuota tarteari dagokionez, tramite burokratikoak arintze, matrikulazio agiriak euskaraz eta gazteleraz izateaz gain, beste hizkuntza ezberdinetara itzultzeko eskaera jatorri desberdinetako familia hauek ere informatuak egon daitezzen; 2 urteko haurrak kuota ordaintzetik salbuetsiak egon daitezela; haurreskolarik ez duten herrietako haurrek inguruko herrietan aukera berdintasuna izatea baremoari begira, ...)

- Testuaren **sarreran** *“297/2002 dekretuaren 6.artikuluan ordutegia eta egutegiari buruz ezartzen denez, **Haurreskolek zerbitzu zabala eskaini behar dute, familia-bizitzaren eta lan-munduaren arteko bateragarritasuna errazteko**”* jasotzen da.

**Aldiz, Haurreskolak Partzuergoak eskainiko duen ordutegia murriztuko da:** *“7:45tatik 16,00ak arte luzatu ahal izango dela gutxienez hiru haurrek eskatzen badute”* nahiz eta erabakian ondorengo argitaratu duen *“haurreskola bakoitzak landuko du bere ordutegia eta zehaztuko ditu ordutegia zabaltzeko eta ordutegia malgua egiteko baldintzak”*. Aurreko ikasturteetan 7:30etik 17:00etara egon zitezkeen zabalik, eta 18:30ak arte luzatu.

**Haurreskolen tipologia ez da bereizten ezta aintzat hartzen ere,** eta erabaki hauekin **haurreskola txikiak eta bertako familiak dira kaltetuenak,** beraz, administrazioak eskaintzen duen zerbitzu honetan berdintasun printzipioa ez da bermatzen.

- **Matrikulazio epe bakarra zehaztu du,** apirilaren 11tik maiatzaren 9ra arte, soilik irailean hasteko nahi duten haurrentzat, hainbat kasutan maiatzetik aurrera jaiotzen diren **haurren haurreskolaratzeko eskubidea bermatu gabe.**

- Matrikulazio epetik kanpo onarpen sarrera dataren hurrenkeraren arabera onartuko dira eta lekurik egon ezean **ez da itxaron zerrendarik eratuko**. Eskaerarik ez duten haurreskolak itxiko dituztela zehazten da araudian. Hortaz, **eskaerak dauden herri edo auzoetan gelak edota haurreskolak zabaltzea eskatzen dugu**. Horretarako **ezinbestekoa da tokian-tokiko eskaeren informazioa izatea**, beraz, tresnarik egokiena eskaera guztien zerrenda edota itxaron-zerrenda egotea dela uste dugu.
- **Taldekatze gelen inguruko zehaztapena** ere egiten da lehen aldiz, familien eskaera mugatu dezakelarik.
- **Doakotasunaren bidean** ere, ez du urratsik eman.

Gauzak horrela, erabaki honek Haurreskolak Partzuergoaren **langile kopuruaren gainean eraginik ez izatea eta ahalik eta lasterren langileak egonkortzeko izapideak eta negoziazioa hastea** eskatzen dugu.

**LAB sindikatuak Hezkuntza legean eragin nahi du, horretarako Haurreskolak Partzuergoan kalitateko haur hezkuntzako lehen zikloa (0-3) doakoa, unibertsala, euskalduna, eraldatzailea eta hezkuntzan integratua izateko bidean behar besteko ekarpen egingo ditu, borrokak aktibatuko ditu eta sindikatuen arteko elkarlana bultzatuko du.**

haurreskolak **0123 = 0€**  
**unibertsala** doakoa **euskalduna** kalitatekoa  
**inklusiboa** eta hezkuntza sailean **integratua**